

Azken ikasturteetan, gure herriko haur eskolak matrikulazio eskaerei erantzuteko zailtasunak izan ditu espazio falta dela-eta.

Egoera horrek familia ugari kalte egiten die, eta Lasarte-Oriaren etorkizunean ere eragina izango du. Haur lasarteoriatarrek haur eskolako lehen urteak herrian bertan gauzatzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu; izan ere, herriko ikastetxeetan ikasi edo inguruko herrietara joateko hautuan eragin du horrek.

Horregatik, haur eskolako lehen urteak herrian egiteko aukera izatea funtsezkoa da, herriaren kohesiorako, aukera-berdintasunaren alde egiteko eta Lasarte-Oria bizi baten alde egiteko.

Gure Udal Taldearen legealdi honetako programan, argi esaten genuen Lasarte-Orian ikasi, bizi eta lan egiteko proposamen zehatzen alde egingo genuela. Herrian errotu eta bizitza proiektua garatzeko, beraz, ezinbestekoa da haur eskola publikoan herriko haur eta familientzat nahikoa plaza eskaintzea eta beharrezko baliabideak bermatzea.

Familien kontziliazio beharra gero eta handiagoa dela kontutan izanda, herriko haurrek Lasarte-Orian ikasteko, Udalak espazio gehiago esleitu behar ditu eta beharrezkoak diren plazak sortu. Egun herrian dugun eskaintza urria denez, kontziliazioa ezinezkoa bihurtzen du, eta alternatiba errealik gabe, zama berriz ere familien gain uzten du. Hainbat familik, lehenago ere, hori adierazi dute. Halaber, haur eskolako ordezkariak, Eskola Kontseiluan, behin baino gehiagotan egin dute eskaera hori.

Horregatik Lasarte-Orian jaiotako haur guztiek eskubidea izan behar duten bertan ikasteko, eta udalaren ardura da hori errealitate bihurtzea.

Lasarte-Oriako EH Bildu Udal Taldeak Osoko Bilkurari eskatzen dio ondorengoa erabaki dezala:

1. Haur eskolari espazio eta gela gehiago esleitzea. Espazio berriak atontzeko beharra onartzea, diagnostiko baten bitartez, eta premia maila zehaztea.
2. Udalak ahalik eta epe laburrenean espazio gehiago gaitzeko konpromisoa hartzea, haur eskolako eskari guztiei erantzun ahal izateko.
3. Prozesu honetan parte hartzea bermatzea eta familien eta hezkuntza komunitatearen iritzia jasotzea.